

1991ko Urtarrila/22. Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailaren babesarekin

... eta kitto!

Gero eta janaridenda gutxiago

1986.tik hona, 41 desagertu eta 11 berri sortu

Gabonak direla eta Udaleko Euskara Komisiotik kanpaina berri bat antolatu dute, "Euskeraz Jator" izenpean, jendeari erosketak euskaraz egin ditzan animatzeko asmoarekin. Hau dela eta janaridendak gaur egun bizi duten egoerari zuzentzen dizkiogu jarraizko lerroak. Ez da ahaztekoa, bestalde, eibartarrok erosketak egiterakoan bestelako harremanetan, baino euskara gehiago erabiltzen dugula.

1986eko eta 1990eko denda errol-den datu konparaketan azaltzen zaigunez une honetan Eibarren orain dela 4 urte baino 30 janaridenda gutxiago daude. Alde bate-tik, 30 janaridenda, 8 haragitegi, arraindegia batek eta bi fruitategiak itxi dituzte heuren ateak. Galera honen ondoan oso urriak suertatzen dira zabaldu diren 11 denda berriak: 6 janaridenda, 4 haragitegi eta fruitategi bakarra. Auzoari begira bi aipa ditzakegu, galeraren kopuruari dagokionez, Herri-ardatza -honen barruan, Merkatu plaza dago- eta Amaña. Azken auzo honetan janaridenda erdiak desagertu dira (16tik 8). Janaridenden kopuruan igo den auzo bakarra Urki da. Guztira, janaridendei gehitzen badizkiegu haragitegi, arraindegia eta fruitategiak 183an geratzen gara, orain dela urte batzu berrehunak ondo pasata izan zirenean.

Gertatu denaren zergatia, batez ere, Eroski supermerkatuei gehitu zaion MaxiEroskiren konpetentzia datza; hobe esanda, honen aurrean denden konpetitua ezina. Honi Eroski eskeintzen duen erosotasuna -asteen behin joan eta aste guztirako erosketak bertan egiteko ahal-bidea- gaineratzen badiogu, segidan ulertzen da denda arruntak pairatzen ari direna. Supermerkatura joaten denak, zeozer ahaztu badu, orduan jotzen du janaridendetara. Denda hauetan bezero garrantzitsuen beste bat da, bizitza guztiko bezeroa, harreman estuago batekin.

Badago beste puntu bat: dendak gutxitu, lana ere gutxitu egin da.

Goizetan 2 ordutan bakarrik edo dextente samar aritzen dira; aratsaldean, aldiz, hilik daudela dirudi. Orokorrean janaridendak andren esku daude, beraien gizonak beste zerbaitean diharduten bitartean.

Ipurua eta Errebal Merkatu Plazako langileek ere arazo berdinekin aurkitzen dira. Gainera, Errebalen birmoldaketa dela eta Udaletxearen laguntzaren zain daude. Egia esateko, janaridenda guztiak ados daude zerga gehiegi ordaintzen dutela salatzerako orduan, batez ere gero Udaletik jasotzen dutenarekin konparatuz gero.

■ Irtenbidea espezializazio

Euki Aholkularitzaren gerentea den **Moises Gonzalezen** eritziz "prezio aldetik ezin daiteke ezertxo ere egin, hobe da ez ukitzea. Beste bide batzu aukeratu behar dira eta hauek espezializazio eta zerbitzu arloan aurkitu ditzakegu, hain zuzen Eroskik uzten digutenak, bere esparrutik kanpo. Bide honi jarraituz denda txikiak ez dira desagertuko. Adibide bezala Patxi Janaridenda eta Isasin dagoen bat inpiniko nituzke, bertan jende piloi hartzen delarik; hor argi ikusten da jeneroak etxera eramatea eta kalitatezko elikagaien eskeintzak nola erakartzen duen jendea".

Moisesek, bestalde, profesionaltasuna aipatzen du derrigorrezko gaitasun bezala. "Dendariak profesionalak izan behar dira. Esperientziarik gabe ezin da denda bat zabaldu, segidan ixteko zorian



egon bait gintezke. Aholkularitzan ikusten da denda munduan ikastea beharrezkoa dela, beste gauzetan bezala. Gaur egun gastuak finantzatzeko aina laguntzak ematen dira; Kontutan izan behar da, gainera, inbertsioa txikia izaten dela, erosketak puntu nagusienak direlarik". Denda motari buruz "haragitegiak ez dira desagertuko direnak, orokorrean haragina ez denak ez bait ditu zabaltzen. Fruitategiak, aldiz, ez dute etorkizunik, neure ustez" dio. "Abantailak produktu batzutan zentratuz lortu dezakete; ez dut esan nahi honekin boutique baten bihurtu behar direnik. Ubikazioa eta ordutegia ere ez dira alde batera utzi behar. Azken finean, portzentaiak handiagotu behar dira, bizi ahal izateko".

■ "Euskaraz Jator" kanpainaren alde

Dendari denak kanpainaren alde

DENDA KLASA EDO MOTAK

DENDAK	1986	DESAGERTU	BERRIAK SORTU	1990
JANARIDENDAK	100	29	6	77
HARAGITEGIAK	59	8	4	55
ARRAINDEGIAK	31	1	-	30
FRUTATEGIAK	23	2	1	22

ITURRI ONETIK

Patxi

(Bidebarrietako
Janaridendakoa)

22 urte lan honetan. Bere aurretik arreba egon zen dendaren jabe moduan, "Pili Janaridenda" izenez ezagutzen zenean. Lau urte badarama Dendarien Elkarte barruan eta erakunde honetan bokale izana dugu.

Zer deritzozu denda txikien gutxitzeari buruz? Honi aurre egiteko ikusten al duzu irtenbiderik?

"Nik beti esaten dudana da hau gaitasun bat bezala dela eta nahiz eta gaixorik egon, ez gaitasun hilgo. Ia jende guztia ari da 92.ari begira eta, benetan esan behar badut, nik ez diot inolako beldurrik; behitatz, denda honetan gertatuko denari buruz. Denda den, guztiok ez gara maila berdinean. Gure denda herriko erdialdean kokatuta dagoenez badiu edo izan litezke beste auzo batzuekin konparatuz zenbait berezitasun. Ez dugu ahaztu behar dendak izten jarraituko dutela, kaleak agintzen bait du, eta lege honekin nahi eta nahi ez konformatu beharra daukagu. Gure dendan ere lehen lau pertsona ginen eta kreditua eskatu behar izan genuen bi kaleratzeko.

Irteerak bilatzerako orduan nahiko arazorekin egiten dugu topo. Horrela, Eroski batek Administrazioetik laguntzak jasotzen dituen bitartean, Gipuzkoako Secuc kooperatibaren gaudenoi ezetza eman digute, kooperatiba pribatua gaitasun arbuia. Honi, ordaintzen ditugun zergak gaineratzen badizkiogu, ba atera kontuak... Supermerkaturaren eraso hauen aurrean, espezializazio bideari heltzearen aldekoak badaude baina ez nago heuren; ez dut uste bide egokiena denik. Irteerak, gehiebat, komertzialak izan behar dute: beste marka batzuri zuzendurik, supermerkatuen aurkitzen ez direnak. Bestalde, edozerri heldu behar zaio. Ogia, adibidez, zeren bila datorrena ogiarekin batera beti eramaten ditu, hiru edo lau gauza gehiago. Daukagun lanean egunero saiatu behar gara".

... eta gainera

- Herriko gizarte-balizbideak
- Gazte enplegua
- "Kopos": bidai alternatiboak
- Josefinarekin berbetan
- Tabernak esteko orduaz

JANARIDENDEN MUGIMENDUA

NON	1986	DESAGERTU	BERRIAK SORTU	1990
URKIZU	19	4	1	16
HERRI-ARDATZA (Errebal Plaza)	116	18	4	102
URKI	27	3	5	29
IPURUA (Ipurua Plaza)	21	6	1	16
LEGARRE	6	1	-	5
AMAÑA	24	8	-	16
Guztira	213	41	11	183

**calcul
mecano**
Zure Bulegoa Jazteko Egokienak Gara

Toribio Etxeberria
Telf: 70-07-50 / 70-11-95

EIBAR (Gipuzkoa)

Gipuzkoako
Industri
Bankoa

bankoa

INTERES HANDIKO KONTU KORRENTEAK
ERRENTAGARRITASUN PAREGABEA

ZULOAGATARREN, 7

TEL: 11 39 40

Epe laburrean izango dugu eibartar giza baliabideen gidaliburua

Epe motzean, Eibarko Udaletxeko Osasun eta Gizarte Ongizate Sailak bultzatuta, giza errekurtsio edo baliabideen gidaliburu zabala


kaleratuko da gure hirian. Gidaliburu hau hiritar guztien artean banatuko da eta Eibarren aurki daitezkeen zerbitzu mota guztiak jasoko ditu.

Eibarko giza baliabideak jasoko dituen gidaliburu hau ezagutzeko Osasun eta Gizarte Ongizate sailaren sozietate edo asistente soziala den Jaione Azkuerekin mintzatu gara. Izan ere, Jaione izan zen, Udal sail honetan lan egiten hasi baino lehen, gidaliburu honen proiektua Eibarko Udaletxeari aurkeztu zuena. Berak esandakoaren arabera, "sozialtzaileen Eskolako talde batek Gipuzkoako gidaliburu landu ondoren, proposamena Tolosa, Arrasate eta Eibar bezalako herrietara zabaltzea erabaki zuen". Eibarko Udaleko Osasun eta Gizarte Ongizate sailak Jaione Eibarren aurkeztutako proiektua onartu zuenez, Donostiako beste lagun batekin, Isabel Perezekin hain zuzen, Eibarko giza baliabideen gidaliburu lantzeari ekin zion eibartar gazte honek.

Gidaliburu lantzen eta osatzen bi hilabete eman bazituzten ere, konstanta izan behar dira ondorengo aktualizazio eta berrazterketa lanak. Logikoki 70 orrialde inguruko originala inprentara bidali baino lehen beharrezkoa izan da gidaliburu goitik behera berrikustea.

Helburuak eta errekurtsioak

Lehen esan bezala gidaliburu hau hiritar guztien artean banatuko da



jendea informatuta egon dadin eta horrela baliabideen erabilera egoikiago egin dezaten. Bestalde, "lan munduan lanerako tresna bat gehiago izan daiteke" Jaione azaldu zigun moduan. Horrela, gidaliburuaz azaltzen diren profesional guztiei bidaliko zaizkie gai hauek, eta baita beste erakunde batzuei ere.

Gidaliburu hau sail edo apartadu ezberdinetan dago banatuta. Adibidez, lehendabiziko orrialde batetan premiazko telefono zenba-

kiak azaltzen dira: osasun zerbitzuak, udal zerbitzuak, epaitegia, garraioak, babespen zibila...

Lehenengo orrialde honetaz gain, sail edo area ezberdinak leudeke: Gizarte, Heziketa, Euskera, Osasun, Kultura, Informazio, Kirol, Justizia, Kontsumo, Hiri mugimendu eta giza komunikabide sailak, hain zuzen ere. Sail guzti hauetatik lehendabizikoa (Gizarte saila) da zabal eta konplexuena. Saila zerbitzu mota ezberdinetan banatzen da,

eta era berean zerbitzu mota bakoitza baliabide mota ezberdinetan. Beraz, saila sektoretan egiten da eta gero hortik baliabide ezberdinak ateratzen dira: Toxikomaniak, Emakume, Gurutze Gorria, udal errekurtsioak, hirugarren adinari zuzendutako baliabideak e.a.

Beraz, Jaione esan zigunez, bali-teke urtearen hasieran gidaliburu argitaratua egotea, eta horrela hiritar guztiek eskuratu ahal izatea.

IRAKURLEAREN TXOKOA

KITTO INTERESGARRIA

Kaixo:

Ni Eibarko euskaldun bat naiz. Orain hasi naiz zuen aldizkaria etxean jasotzen. Zuen aldizkariak hitzegiten ari naizenez esan behar dut guztiz interesgarria iruditzen zaidala.

Besterik gabe agurtzen zaituztet.

Asier Aizpuru

GOITIK BEHERA IRAKURTZEKO

Kaixo:

Estreinu zaret zuen aldizkariaren zerbitzua hobetzen, horrek asko poztu nau etxean bertan jasotzen dudalako.

Egiten duzuen lana interesgarria iruditzen zait, horregatik ale bakoitza goitik behera irakurtzen dut.

Besterik gabe, agur.

Edurne Gaona

ERREDAKZIOAREN OHARRA.

<< eta Kitto >>ren erredakzio taldekoak, irakurlearen txokoa sekzio mantentzearen alde agertzen bagara ere, zuen kolaborazioa beharrezkoa dugu. Horretarako animatzen zaituztegu nahi duzuenaren gainean idatz dezazuen.

Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta IKUSONIKek oparitutako duen diska irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!

Eibarko Udala
Euskera zerbitzua

"Eta Kitto Sariketa" 21. Aleko sariketaren erantzuna "Bilbo Zahar kaletik begiratuta Amenabar Tabernako atzekaldean dagoen fatxada" zen.

SARITUA: ASIER AIZPURU BARRIO. Bustinduitarren kalean bizi dena. Hurrengo Sariketarako Urtarrilaren 15a baino lehen bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!

IKUSONIK

DISKA

SALDUENAK ABENDUAN

ERDERAZ

Elton John. "The very best"
Police. "Exits"
Boom 6
Madonna. "Immaculate Collection"
"Lo más disco"

EUSKERAZ

Gontzal Mendibil. "Zu zeu"
Txerokee. "Mikel Laboaren kantak"
Txomin Artola. "Txomin Artola"
Negu gorriak. "Negu gorriak"
Txirri, Mirri, Txiribiton. "Egu berri on"

ARGAZKI NOTIZIA



Zertan ari haiz, Rialto jauna?

Itxura badarama ere, ez du funtziorik betetzen. Beraz, "Haizeak eraman zuena"ren moduan, ilusio hutsean geratu zaigu. "Kwai ibai gaineko zubia", "Ego gainean dagoen zinea"ren gorpua hartu eta filmean gertatutakoari jarraituz kataplof egiteko arriskuan omen zegoen. Hori onduz, "Loizko oinen idoloa" keinu zatar bat eginez -egurrezko hesia, Pink Floyden "Orma" baitatzen -aurpegiatzen zaizkigu eta, dagoeneko, "Garai berriak" bizitzen ari garela ohartu gara. Ea noizbaiten bideoak saltzen dituzten!

eustakitto





Hamaikagarren plaga

Bibliak dioenez, Jaungoikoak hamar plaga bota zituen ejiptiarren gain, faraoi bihotz-gogorra judutarrek Ejiptotik kanpo ateratzea nahi ez zuelako. Horrela, Nilo hibaia urak odol bihurtu zituen. Gero, igel plaga bat bihaldu zuen. Honen atzetik moskito plaga bat, eta baita eulizarrez osatutako beste plaga bat ere. Ondoren, izurrite ikaragarri bat. Geroxeago, Ejipto osoa hautsaren bidez estali zuen. Zazpigarren zigorrak lehenengo seirak bildu zituen. Hurrengo, langosta plaga bat izan zen. Ondoren, faraoiaren erresuma guztia behe-laino beltz baten bidez ilundu zuen. Bukatzeko, Ejiptoko oinordeko guztiak hil zituen. Beraz, sesio ederrak izan ziren Moises eta faraoien garai haietan.

Baina histori hauek oso zaharrak dira: berria deskubrimendu batean datza: Jaungoikoak, 3.000 urte geroago, hamaikagarren plaga bat bidali omen du, gure gizartearen lotsagabekeria zigortzeko. Hala diote Espainiak Gotzaien Batzordeko partaideek. Itxuraz, plaga berri hau plastikozko xixaretxo baten bitartez dator. Xixare honek gizonen lekua kuttunen egiten du bere kabia, eta emakumeak erakartzen dituen kantu txo bat botatzen du. Gizon-emakumeak elkartzen direnean, plastikozko xixare hau tartean egonik, gaitzak bata bestearen atzetik datoz. Haurdunaldiak, gaixotasun sexualak, SIDA (gaitz honetatik, batez ere, IHES egin behar dugu); eta guzti hori xixaretxo horren erruz, herriak kondoi edo zakilberokia deitu duen plastikozko plaga berri horren erruz.

Eta nortzuk izan dira plaga honen laguntzaileak? Gure gotzaien ustez, gure Gobernu Agurgarria. Apezpikuen esanetan, Jaungoikoak zuhur jokatu du, sozialisten ahuleziak aprobetxatuz. Horrela, gazteen artean milaka plastikozko xixare dohain banatzeko kanpaina bat antolatu da, Gotzaien amorrurako, jakina. Plan maltzur honen bidez, gazteen artean haurdunaldiak, gaixotasun sexualak eta SIDA kasoak %75 igotzea espero da. Gure sotanadun Indiana Jonesak kanpaina zikin eta lotsagabe hau galazteaz lortzen ez badute, jakina.

Gure herriari dagokionez, arrisku haundirik ez dugu, egia esateko. Aspaldian ateratako esaera egi hutsa bihurtu da: Eibarren larrua jotzea, pekatua baino, mirari bat da. Ez dut uste kanpaina-plaga honek eibartarren ohitura sexualak aldatuko dituenik, ezta gutxiago ere. Gainera, azkenaldi honetan bizitzen dugun temperatura hotzekin, agian hobeago litzateke bufanda "ad-hoc" batzuk banatzea. Katarrorik ez hartzeko, batez ere.

1986-90ko tartean, 1.300 langabetu gutxiago Deba Behean

Langabetuen kopurua gutxitu arren, emakumeek eta gazteek krisisa sufritu behar

Azken urteen martxa ekonomikoaren arabera, langabezia gure gizartearen ezaugarri bat bezala hartzea ohitu gara. Horregatik, inor ez da harritzen Deba Behean lanik gabe dagoen jendearen kopurua jakiterakoan: 3.756 pertsona. Nahiz eta, gure koadroetan ikusten den bezala, langabetuen kopurua

azken urteetan jeitsi den, panorama laboralaren joera lanaren prekarizazio batera jotzen duela esan dezakegu, enpresariak langabezia murrizteko ateratako legeak heuren interesen arabera erabiltzen dituztelako askotan, langileen kalterako.

Gaur egun, Euskal Komunitate Autonomoan (AKE) 130.000 lan gabetu zentsaturik daude. Kopuru horretatik 34.100 giputzak dira, eta 3.756, hain zuzen ere, Deba Beheko biztanleak. Nahiz eta jendetza dexente egon langabezia gure artean, kopurua zeharo jeitsi da azken urteetan, orain dela bost urte 5.000-tik gorakoa zela kontutan hartzen badugu. Beraz, garapen ekonomikoa ez da soilik ipuin bat izan, empleguaren arloan behintzat.

Gure aldizkariak jasotako datuak interpretatu ezkerro, gazteak dira langabeziaren problema gehien sufritzen dituztenak, langabetuen kopuru orokorretatik erdia baino gehiago 29 urtetatik beherakoak bait dira. Gainera, geroxeago ikusiko den bezala, lan kondizioen makalaldien ondorioak gain-gainean dagoen ezpata bat bezala hartu behar izaten dute.

■ Emakumeak diskriminaturik

Gure inguruan, hots, Deba Behean lanik gabe dauden gazteen datuei begirada bat bota ezkerro, inpresio bat argi ateratzen da: bizi dugun merkatu laboralean, emakumeak baztertuak izaten dira sexu arazoengatik, alegia, eme izateagatik. Froga bezala datu hauek plazaratu ditzakegu: lanik gabeko emakume gazteak adin bereko gizonen kopurua baino gehiago dira.

Eibartar feminista baten hitzetan, "kristoren diskriminazioa jasaten dugu emakumeak laboral arloan, beste gaietan sartzen ez ba gara ere". Zifrak benetan adierazgarriak dira eta "gure gazteriak egundoko



arazo laboralak baldin baditu, gazte eta emakumea izatearen ezaugarriak batu ezkerro, oztopoak ia ezinak bihurtzen dira". Estadistikoki behintzat, ezin zaio arrazoirik kendu.

Prejuizio sexualak ez dira problema honetan agertzen den arazo bakarra, langileentzat (Gazteak barne, jakina) krisialdi garaietan bere lan-kondizioak okertzen dituzten faktore ugari agertzen dira.

■ Lanaren prekarizazioa

Azken hamabost urteetan izandako krisialdi ekonomikoak, ondorio larriak izan ditu enpleguaren segurtasunaren arloan. Langilegoak, hain beharrezkoa duen lanaren galtzearen beldurrez, bere kondizioen okertze bat onartu behar izan du. Gainera, lan-kontratu temporalak bultzatzen duen legislazioarekin, enpresariak presio handi bat eskuratu dute langileen erreibindikazioak galarazteko. Bi faktore hauek batzen ba

ditugu, ondorioa lanaren prekarizazio bat suertatzen da.

"Hamasei urte nituela hasi nintzen biharrian" —dio 25 urteko gazte batek—. "Makina bat enpresetan izan naiz garai honetan, beti kontratu temporalekin. Kontratu hauek egundoko arma izaten dira ugazaben eskuetan. Baldin eta protestaren bat egiten baduzu, kontratuaren ezberritzearekin hasten dira mehatxuka. Ni familia batez aduratu behar nahiz, beraz esandako guztiari amen esan behar. Askotan lotsagarria egiten zait".

"Sindikalisten ustetan, kontratu temporalen kaltea gazteek jasaten dute batipat. "Bai, hala da" —dio ELA-STVko partaide batek—. "Lanaren mundura sartu diren gazteak, lege hau martxan jarri zene-tik, lanaren prekarizazio prozesu izugarri bat ezagutu dute. Kontratu hauen bitartez, enpresariak langilego samurrago bat lortzen dute, konzientzia sindikala ahultzen delako. Entrepresa txiki askotan, kontratu laborala edukitzea eta sindikalista izatea aldi berean, ezinezko bat suertatzen da".

Langileen ordezkariak kaltegarritzat jotzen badute lan kontratu temporalen sistema hau, enpresariak, berriz, guztiz konforme daude. Taller txiki baten jabearen ustetan "aurrerapuasoa haundi bat izan da sistema hau. Horrela, gure enpresen martxa planifikatu dezakegu, langile estra batzuk behar ditugunean hartuz. Horrela, ez dira zama bat bihurtzen lanaren kopurua jeitsien baldin bada. Asko sistema honetaz keitaten da, baina enpresen onerako dela deritzot. Eta, ez dezagun ahaztu, enpresak dira enplegua sortzen dituzten erakundeak. Beraz, ezin zaie trabarik jarri".

Lagabetuen kopurua

	1986	1987	1988	1989	1990
E.K.A.	-	198.100	187.100	169.400	130.000
Gipuzkoa	-	54.300	55.500	50.200	34.100
Deba Behea	5.013	5.437	5.071	4.537	3.756

E.K.A.: Euskal komunitate autonomoa (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa)
Oharra: Parametro bezala urriaren kopuruak hartu dira kasu guztietan

Gazte desentplegatuak 1990 urria

Urteak	x - 19 urterarte	20 - 24	25 - 29	Deba Behean
Gizonak	122	259	239	
Emakumeak	179	567	496	
Oro	301	826	735	

Eibarko INEM bulegoan jasotako datuak



BULEGO MATERIALA ETA ALTZARIAK

ETESA

KOMERTZIALA

Bidebarrieta, 66. 428 Postakutxa/ Tfnoa: 12 19 73 (Eibar)

**SASOIKO GAUZEN AUKERA
PAREGABEA**




PREZIO HOBERENAK

ARDAU DENDA

ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA

San Andres, 5 Eibar Tel: 11 01 40

KIROL
PARTIZIPATIBOAEibarko
Atletismo
taldea
lehen
dibisioan

Egilea: Javier Fernandez. "El Correo"



Marzial: "Arazo larriena pista faltarena da"

Gure herriak, atletismo talde on bat du, eta kirol sail hau, Klub deportiboko komisio baten barnean dago. Guk, atletismo komisio honetako lehendakariarekin hitzegun dugu. Marzial Del Amo, 56 urte dituen gizon bat da, hoietatik ia denak, atletismoari zuzendutak. Kirol talde honetan, 1957. urtean hasi zen, beraz, bizi oso bat mundu honi eskeinita. Atletismoarenganako zaletasuna oso txikitatik sortu zitzaion, herri mailan praktikatu ondoren entrenatzaile izatera pasa zen.

Atletismoa Eibarren, es dagu futbol edo eskubaloia bezain finkatua, hala ere, badaukagu modalitate honetan jarduten den gazte talde bat; Klub Deportiboko Atletismo taldea hain zuten. Sail hau, 1924. urtean sortu zen. Hala eta guztiz ere, Marzial-ek dioenez "taldeak, bere gora-beherak eta krisiak izan ditu, baina guk tente jarraitzen dugu".

Entrenatzeko arazoak

Talde honetan, 70 pertaite daude, kirolari zaharrenak 23urte dituelarik. Gazte hauek entrenatzeko, hiru pertsona daude, Inmakulada Urkiola, Esteban Muñoz eta Roberto Agirregomezkorta. "Entrenatzaile hauek, desinteresatu-

ki egiten dute bere lana. "Baiez-tatzen du Marziale-ek" Gure arazo larriena-jarraitzen du Del Amo jaunak-instalakuntza falta da. Ez daukagu inolako pistarik gure entrenamenduak egiteko. Denak, gure kontu egiten ditugu, bai mendian edota libre dagoen beste edozein lekutan. Honegatik, badaude espezialitate batzuk ezin ditugunak praktikatu.

Entrenatzeko pistarik ez izan arren, gure herriko Atletismo talde honen markak eta lorpenak oso onak dira. "Gainera talde hau, Gipuzkoa eta Euskadi mailan, lehenengo dibisioan dagoen bakarra da".

Elkarlaguntzak eta bidaia

Aipatu den bezala, Klub Deportiboko komisio edo sail honek, bere tira-birak izan ditu bere bizitzan zehar. Hala ere, momentu oso onak ezagutu ditu. "Taldea honen gailurra 1940-50 hamarkadan heldu zen eta 1978. urtetik aurrera eraldakuntza bat eman zen".

Atletismo taldearen presupo-tua, 1.700.000 pesetatikoa da eta kanpoko laguntza bakarra Kantabria Jatearena da. Udaletxeak, Klub deportiboari laguntza eskeintzen dio, horrela, aurrera jarraitzea lortu dugu, lan handia eginez, noski.

Gainera ikastola eta eskolekin ere, harremanak ditugu".

Arlo ekonomikoarekin jarraituz, kirolari hauek egin behar dituzten bidaia eragozpena dago. "Txapelketa garaian, Eibartik kanpo mugitu behar gara, horrek ekartzen dituen arazoekin batera. Donostiko jendeak adibidez, ez du ia bidairik egin behar. Gu askotan Tolosara joaten gara eta ez txapelketan parte hartzeko, han bertan pista oso onak dituztelako baino. Guk berriz, goiz altxatu behar dugu eta berandu heltzen gara etxera "aitortzen du Marzial del Amo-k.

Taldearen barnean partaidetza

Zer egin behar den talde honetan sartzeko galderaren aurrean" ilusioa eta atletismoa egiteko gogoia eduki behar da, bestela alferrik da. Ez da inor alde batera uzten, denak, gustora hartzen ditugu. Jendea, oso gaztetatik sartzeka komeni da, urteetan zehar lana ondo eginez, urrutira heltzeko, erantzun zigan.

Laburki esanez, gehien azpimarratzen duena, instalazio falta da. Lana ondo egiten saiatzen dira eta hori ere oso garrantzitsua. Ia ba denon artean, gazte hauek, bere pistak edukitzea lortzen dugun, benetan beharrezkoa.

Idoia Narbaiza 1974-an jaioa. Ignazio Zuloaga Batxilergo institutuan egiten ditu ikasketak, (3.B.B.B.). Ikastolarako idazlanak egiten hasi zen bere idazterako joera hori. Orain dela bi urte, izan zen Narruzko zezen sarian bigarren postua lortu zuen, "Izan da, izango; izan da, izango" lanarekin.

Orain kontatu behar diodan istoria irakurle, ez duk edozein istorio, neroni gertatutako parabola baidzik.

Ordurako irakurria nian zuetako askok bezala, Andu Lertxundiren, "Gizon kabeen pirak", baina, enian asko uste, enian asko uste...


Ziur negok, hik ere gorroto dukela eguneroko zazpirtan edo zortzirtan, azken finean ordu bete ez duk ezer eta, jaikitzea, eta eskolara asteko bost egunetan joan beharra. Nire orduketa ere ez duk bestelakoa, eta 7' 30 etan, nire anaiak oparitu zidan iratzargailu txepelak "jo" zianez gero, enian jaikitzea beste intenbiderik, klasera ez azaldu eta etxean, institutotik bidaliriko "papertxo" bat jaso ez banuen nahi behintzat. Hala egin nian beraz.

Lehenengo klaseko materia historia izan huen, eta ondoriz, nere gorpuzak, Peruenaren marka autsi izan banian baino neke handiagoa som-tzen zian:

"Ez hituen makalak Erromatar horiek".

Bigarren klasea erraza izan huen; haseran orri batzu banatu nizkian

Nire amets hura



Idoia Narbaiza

gela osoan zehar, eta gero ez nian kolperik jo. "Gure abade jaunak ez zekik asko guk zenbat maite dizkigun bere erlijio klaseak, espazio untzirik gabe ilargira joan bait ninduan lehen aldiz, bere lehenengo klasean."

Eta hirugarren orduko klasean, marrazketa genian, baina klasearen hasera-haseran, lo hartu nian, roke gelditu ninduan. Amets bitxi bat izan nian nire buru ameslariaren gainean eta bapatean, garrasi ero batzuek esnatu nindutuen. Nire


ingurua begiztatu nian, eta gelako kideak, soinean sorgin zaharren trapu zaharrak jantziak zizkiatela eta eskuen gainean zebiltzalarik korro bat osatuz eltzatxi txukun batean biraka dantzan zebiltzala iruditu zitzaidan, hala huen gainera. Aipaturiko eltzeari tapa kendu zioten, eta marrazketako irakaslea, eltzatxi txukunean eltxo txiki bat bailitzan egosten zegoen, azenarioz, patataz eta perexilez ornitua. Lagunek dantzara gonbidatu nindutuen eta musika herriko baten doinueta dantzan jardun ginduan, etzekiat nola, baina ni ere eskuen gainean ibiliaz. Irakaslea oso goxoa egon huen, nahiz eta aukeran gatz gutxitxo eduki. Eta lanok bukatutik bakoitzak bere erratza hartu zian, eta hegan joan zituan mendian gora. Nik enian erratzik, baina betiklase bazterrean egoten dukan erratz modernoa hartu eta hegan egiteari ekin nioan.

Puskatu diagu monotonia, orain koba baten bizi gaituk, eta gutaz inork ezer galdetzen badik, esaiok ez huela sekula gure konturik entzun agian, egunen baten gure kabuz itzuliko bait gaituk.

beraien aartean erlazio berezi bat sortuaz. Baina gauzak okertuz joango dira "Castel"-ek, Mariaren eta bere helburuak, berdinak ez direla konturatzearan. Margolariaren iritziz, "Castel"-ek, hilketa hau, berak sortutako ondorioetan oinarritzen du, horrela Maria deituriko emakumea erahilaz.

"Castel", hogeitahemezortzi urtetako margolariak, bigarren planu batean leiho bat duen koadro bat marrazten du, leiho honetan etsipenezko mezu bat ageri delarik. "Castel", honetaz oharturik, Maria dela munduan bera ulertu dezakeen pertsona bakarra uste izango du, eta Maria bere bizitzako atal bat bihurtuko da. Hilabete batzu barru, "Castel"-ek hainbeste desio izango duen aurkitzea edukiko dute,

Izenburua: El túnel
Egilea: Ernesto Sábato
Argitaletxea: Catedra
Orrialdeak: 165



Gaurko honetan Argentinatar idazle dugu aipatutako hau. "Ernesto Sábato", Buenos Aires-en jaio zen 1911. urtean. Zientzilaria izan zen, literatur munduan aritu aurretik. Hiru nobela idatzi zituen soilik, hala ere baditu beste zenbait lan, elaberri hauen aurretik idatziak. "Ernesto Sábato", nobelagile intelektualizat hartua izan da bere obra erakitzeke eragaatik, gizarteko arazoak bere obretan erreflexatzeko sarriagotus-nagatik... eta abar.

Gaurko "El túnel" nobela hau, idat-

zitako elaberrietatik lehen da, eta bertan "Castel" deituriko pertsonai batek, bere psikologia ezaguterazten digu, bien bitartean, berak burututako hilketa bat kondatzen digularik. "Castel"-ek, hilketa hau, berak sortutako ondorioetan oinarritzen du, horrela Maria deituriko emakumea erahilaz.

"Castel", hogeitahemezortzi urtetako margolariak, bigarren planu batean leiho bat duen koadro bat marrazten du, leiho honetan etsipenezko mezu bat ageri delarik. "Castel", honetaz oharturik, Maria dela munduan bera ulertu dezakeen pertsona bakarra uste izango du, eta Maria bere bizitzako atal bat bihurtuko da. Hilabete batzu barru, "Castel"-ek hainbeste desio izango duen aurkitzea edukiko dute,

FIRIN FARAN

leak. Epea 1991.ean amaitzen da.

Alemaniera ikasteko ikastaroendako bekak: Alemaniako Errepublikak Federalesko Gobernuak aurkezten du. Kanpo Aragoetako Ministraritzak. Eskatzaileak unibertsitarioak izan behar dira. Alemaniako Goethe Institutuan ikastaroko egiteko 30 beka emango dira. Epea 1991.eko 25. an amaitzen da. 4.350 DM emango dira.

EEE-ko (C.E.E.-ko) zentruetan ikasketak egiteko bekak. Europako Kanpo Arazoetarako Ministraritzak antolatzen du. Lizenziatuak eta azken urteko

unibertsitarioak dira eskatzaileak. 125.000 pta hilero emango dira. Argibideak telefono honetan dituzte: (91) 441 90 44.

LEHIAKETAK

"Ruta de la Plata" izeneko kazetari-tza-literargintzazko I deialdia. Asturias, Gaztela eta Leon, Extremadura eta Andaluziako komunitate autoanok antolatzen dute. Edonork parte har lezake. 2.500.000 pta dira. Epea 1991ko martxoaren

1.ean amaitzen da. Argibideak telefono honetan dituzte: 947 33.00.99.

IKASTAROKAK

Lan bilatzeko teknikak. Emakumearen Bideleko antolatzen du; Eibarko Udalak. Tekpor taldeak emango du. Urtarrilaren 14etik Otsailaren 28a bitartean. Ordeutegia aratsaldeko 3etatik 17,30etara izango da. Argibide gehiago telefono honetan: 11 68 45. (238).

Igeriketa ikastarokak ere egongo dira Polikiroldegian.

ANE MIREN
MODAK

ESTAZIÑO, 1 Tfnoa: 70 19 62

Baita sukaldaritza ikastarokak ere. Argibideak, Udaletxeko Informazio bulegoan aurki ditzaitezue.

BESTELAKOAK

Soldaduzka egitea ez bada zure hobia. insumisioaren alde bazaude, Gazteentzako informazio Bulegoetara. Gazteariaren kontseildetara, eta objektoreen taldeetara joan zaitezke.

Kili Kili
Gosariak
Plates hobinatuak
Goizeko islatatik zabalik
Eibarren
Tfnoa: 11 24 01

S.C.R. ARRATE

Goizeko 7,30etatik zabalik
Pintxo eta tragu xarmanantak

Etor hadi
"KULTURALERA"

Zagora
Hizkuntzen
liburudenda

C/ Arragüeta, 7. Tfnoa. 12 72 21

E i b a r

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK

ZEZENBIDE, 6 (EIBAR)

Tel: 11 00 70

umea

Umeen eta gazteen arropak

Errebal, 16 Tfnoa: 11 31 64 EIBAR

MARGOLA

TINDATEGIA
ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA

Bista Eder, 6

Tfnoa: 11 12 49

EIBAR

Kazetaritza mundu konplexu ta aparta

Ana Aizpurua, 21 urtetako Eibartar neska honek, urte bat darama Leioa eta Eibar artean, ikasketak eta lana egiten. Leioan Kazetaritza 4.urtea ikasten ari da eta Eibarren "Eibar irratia" lanean eta aldi berean, 'eta kitto'n sortu zenetik jota sua. Elkarriketa honen bitartez, bere ikasketak, esperientzi, emaitz.e.a. aurkezten digu. Eta batez ere Irratiaren mundu eta gora beherak.

G.- Nondik dator zure afizioa kazetaritza ikasi eta lana egiteko?

A.- Betidanik. Neri gehien gustatzen zaidana idaztea da, eta U.B.I.ko ikasketak bukatu nituenean Leioako, informazio zientzien fakultatean matrikulatu nintzen, eta orain 4.mailan nabil.

G.- Nola hasi zinen irratia munduan lan egiten?

A.- Kasualitatez. Ez nintzen inoiz planteatu irratia baten lanegitea neri gehien gustatzen zaidana idaztea delako. Enteratu nintzen "Eibar Irratia" neska bat behar zutela, bai kazetari ikasketak egiten zegoen bat edo bai kazetaritzan lizentziatua zen bat. Etxean eta lagunen artean bultzatu ninduten eta bertara jo nuen. Hango zuzendariarekin hitz egin eta ahots frogatza bat egin zidaten. Froga hau maiatzan izan zen eta urrian banengoan irratian lanean hasteko prest.

G.- Zein da zure lana "Eibar irratia"?

A.- Beste neska batekin nago irratia saioan. Biak arratsaldean gaude eta magazin bat egiten dugu, denetarik pixka bat: Informazioak, elkarrizketak, hori bai, dena kutsu kultural batekin. Baita ere musikari garrantzia ematen diogu.

Hemendik aparte, astelehenetan ordu 1'erdiko saio bat egiten dut eta euskarazko gai kulturalak jorratzen ditut, baina batez ere irratia saioa erderaz izanda 10 minututako euskarazko informatibo bat egiten dut azkenean.

G.- Kazetaritza munduan onena izan behar da lehenengo maila batean egiteko. Konpetentzia arazoa esplikatuz.

A.- Arazo handia dago lehenengo momentu batean. Hala ere, komunikabide asko daude, eta gero eta komunikabide gehiago ateratzen ari dira, baina kontutan hartu behar dugu, jende kopurua askoz handiagoa dela kazetaritza munduan lan egiteko.

Nire ustez, lanean egoteko garrantzitsuenak, konstante eta oso langile

izan behar zara.

Horregatik lan guztietan bezala baina kazetaritzan askoz gehiago, langile izatea eta sakrifizioa azpimarratuko nituzke.

G.- Zer desberdintasun ikusten dituzu irratia eta T.B.aren artean?

A.- Neretzat, T.B. artifizialagoa da, edo ikusten dut, zuzenagoa, pertsonalagoa. Nolabait jendea irratia helduko, informatu, dibertitu, eritzi bat sortarazi, horretarako irratia aproposagoa deritzot.

G.- Irratiko gauza on eta txarrak.

A.- Gauza onak gehienak dira. Oso zaila da mikrofono baten aurrean jartzea. Ezin duzu imajinatu zernolako nerbiosismoa sentitzen duzun, baina ez bakarrik lehenengo egunean, jarraitzen duzun elean ere beti dago errespetu handi bat. Hori polita da, sentsazio oso berezia, eta garrantzizkoena, konturatzen zarela jendearengan heltzen zarela. Ez du axola kopuruak, beraiegana heltzea baizik.

Gauza txarrak, zuk ez baldin baduzu humorarik egunen batean, baina hori izango litzateke gauza txar bakarra.

G.- Orain dela gutxi, Eibarren beste irratia bat zabaldu da. Beharrezkoa ikusten duzu Eibarren beste irratia bat zabaltea edo gehiegizkoa da.

A.- Ez, ez dut gehiegizkoa ikusten. Beti ere konpetentzia badaukazu horrekin motibo bat duzu lan gehiago egiteko, eta bultzatzen zaitu zu ere. Beste emisora batekin entzuleen aurrean, pentsatu behar duzu audientzia kenduko dizula eta horrek kezka sortzen dizu gauzak hobeto egiteko, gogo gehiagorekin.

G.- Irratia bakarrik ala T.B. ere bai?

A.- Oraintxe bertan T.B.n lan egitea ez dut pentsatzen. Zaila ikusten dut. Baina dena den ez dut ezer deskartatu, ezin dut medio bat alde batera utzi edo baztertu, ez prentsa, ez T.B. Behar bada 4 edo 5 urte barru T.B.n lanean nago, ez dakit.

G.- Eibarren entzule asko al dago?

A. Egia esan, ez dakit zein kopuru



dagoen baina jendea badago. Gauza kuriozosa da. Zu lanean zaudenean pentsatzen duzu inork ez zaituela entzuten. Denetarikoa jendea izaten da gure entzulegoa. 15-19 urtetako jende gaztea argi dago, musika entzutea gustatzen zaiona. Eibar irratia ez da hori gertatzen. Normala da entzulegoa nagusiagoa izatea. Garrantzi gehien ematen dieten saioekin 4 bloke egingo nituzke; informazio munizipala, kirolak informazio orokorrak eta azkenik saio entretenigarriak.

G.- Zer esan jendea irratia entzuteko edo irratia motibatzen.

A.- Oso zaila da. Benetan, jendearen gustoa jaitzea oso zaila da. Guk ez dakigu jendea zer gustatzen zaion konkretuki, interesgarria den edo txapa bat den. Horretarako jendea irratiaekin kontaktuan jarri behar da beraien eritzia esateko.

Askotan ez dakizu egun askotako lan bat produktiboa izango den ala ez.

Alegia zuk lan hori oso gustora prestatzen duzu baina jendea ez zaio bat ere gustatu, auskalo!

Adibidez, jendea saioaren bat asko gustatzen baldin bazaio generaliki jakiten dugu, asko deitzen dutelako baina ez dakigu zenbati bai edo zenbati ez. Horregatik gustatuko litzaguke gurekin kontaktuan jartzea beraien eritzia jasotzeko. Bai alde onak eta bai kritikak noski eta denon artean irratia on bat egin.

... eta kitto!
Gomendaturik

Steve Vai Guda eta pasioa



Duela bi zenbaki, Joe Satriani gitarrajole famatuaren "Surfing with the alien" diska aurkeztu genizuen. Atal honetan, bere ikaslea izan den Steve Vai-ren azken lana dakarkizuegu. Bere izenburua "PASSION AND WARFARE" da.

Bakarrean egindako lana da, hau da, orainarte beti egon da eta dago talde bati lotua. Adibidez, David Lee Roth-ekin (Van Halen-en abeslaria izandakoarekin) aritu zen urte batzutan zehar, berarekin diska pare bat ateratu zituelarik. Gaur egun jende gehienak ezagutuko duen "Whitesnake" taldean jotzen du, maila handiko beste gitarista baten ondoan; Vandenberg da bere izena (seguraski azalduko da gizon honen lanen bat hurrengo zenbakirean). Aurtun, Whitesnakek, Anoetako belodromoan eskeiniriko kontzertuan ikusteko aukera izan genuen, eta esan behar ezin hobeto egon zela.

Gizon honek taldeekin egindako lanetatik aparte, bere bakarreko lanak egin ditu aipatu dugun bezala, eta diska hau horren adibide garrantzitsua bat da, bertan argi geratzen delarik gizon honek duen musika egiteko ahalmen izugarria, eta bere soinu eta estiloaren nortasun osoa.

Berrogeitabost minutu baino gehiago irauten duen diska honetan ez da ahots abesturik agertzen nahiz eta ahotsak hitzegiten agertu. Instrumentala da hasieratik bukaeraino.

Hamalau abestiez osaturik dago. Izanburu batzuk aipatzekotan "ERO-

TIC NIGHTMARES" edo "THE AUDIENCE IS LISTENING" izendatuko ditugu diska barnean datorren azalean, izenburu bakoitzaren ondoren berak idatziriko hitz batzuk agertzen dira, batzuk abestietan agertzen direlarik eta beste batzuk ez. Hitz hauek musikarekin espresatu nahi dituen pentsamenduak dira. Adibidez aipatu dugun bigarren izenburua, B aurpegi-ko lehenengo abestia da. Bere ideia: eskola batetako gela bat da, andereino Steve-ri hitzegiten hasten zaiolarik, esanez gitarra hartzeko eta beste hiru lagunekin jotzen hasteko, pentsatuz abesti polit eta eskolako lagunentzat idatzi duela eta bizi guztia igaroko duela gitarra jotzen, gitarrajole famatu bat izan arte. Momentu horretan abestia hasten da, infernuko soinuez beteta, andereinoari zoramen dakarkiolarik. Abesti guztian zehar andereinoaren histerismoa Steve haurraren nortasun hitzekin nahastutzen da.

Beraz, eta adibide honen ondoren, esango dugu aurtun argitaratu den Steve Vai-ren azken lan hau magiaz beterik dagoela. Eta Joe Satrianiren diska entzun baduzue, jakin hildo horretatik doala baina noski bakoitzak bere izaera plasmazten duenarik.

Gustuak gustuak dira eta zihur diska hau ez dela hemendik oso entzuna izango baina seguraski aurtun munduan zehar argitaratu diren disken artean maila altuenetarikoa lortu duen lana izango da, maila altuenetarikoa gitarista bait da.

DENBORA PASA

LETRA ZOPA

ENB100

E	I	A	N	K	A	L	O	U	Z	T	Z
A	L	B	I	R	K	I	R	R	U	N	I
B	E	T	A	Z	I	K	E	T	U	A	K
E	M	I	X	R	Z	O	S	E	M	I	T
L	I	Z	T	O	R	E	R	R	U	X	O
I	H	I	Z	K	L	A	A	T	I	P	B
I	L	U	E	O	D	I	S	M	H	O	D
E	F	A	G	I	M	A	E	K	E	J	I
R	U	D	E	R	A	L	T	A	I	N	E
A	R	R	A	I	E	Z	H	E	R	L	E
B	A	I	T	T	I	F	E	G	A	D	O
Z	T	R	A	R	I	K	L	I	K	I	N

Hamar intsektu eta animalia hezugabekorde dira letren artean. Non dira?

ZER IKUSI HURA IKASI

ARGAZKIARI BURUZ

Mendian zehar egiten diren txangoak aukera handia ematen dute argazki onak egiteko: lineak, formak eta argi bereziak edozein lekutan aurkitzen direlarik. Jakina, eguraldiaren baimenarekin.

Eta gero, ausartzen bazara, pintatu ere ahal duzu. Azken batean, koloreztatuz zuri beltzean egindakoa kolorezkoa bihurtuz. Hemen paper berdearekin gertatuko den moduan...



FITXA TEKNIKA

Egilea: Jose de Lera

Kamara: Canon AE1 program

Objetiboa: 50 mmkoa

Errebelatzailea: RODINAL 1:50 16'

Papera: Ilfordspeed 3

Errebelatzaile positiboak: Neutol NE 1+9

47 urtetan egunero zaldixakin kalera

Josefina, Sosola baserrikua: kaletik baserrira joandakoa.

Gaur egunian baserriko jentia kalera bizitzera juanda daon arren badao kontrakua eñ dabena be, hau Josefina, gaur egunian Sosola baserrixan bizi doguna da. Kalian jaixo zan arren baserrira juan zan bizitzera ta ordutik aurrera bertan baiño gustorao iñun eztaola berak kontau dosku. Oiñguan baserrixetako problemak eta nundik norakuak pixkat gehitxuao ezautzeko aukeria izango dogu Josefinari esker.

Zelakua izan zan zure baserriko hasikeria?

"Ni jaixo nitzan Errebalian, kalia jaixo nitzan. Geruao juan nitzan Eskareiko errotara, Orbetik goratxuao daona, emana nekan han. Gero handik, ama gaixotu jatanian Ixurara juan giñan. Gero hamar urtekin kria-da juan nitzan, ta bueno: errekauek aittera ta bueno... ezta? Ta enekixan dibidir be; edo... dibidir ez! Multiplikar enekixan!; ikasi barik eta, bueno! Hantxe errekauek eta serbitzen da ba... hantxe! Ahal zan guztian! Ta gero handitxeik honaxe ezkondu. Baña hemen Josek darabill apellirua, laurehun ta berrogeitamar urte daroiaguz apelliru horrekin hamen. Sosola baserrixan izena Gisasola apellirutik datorrela pentsatzen dot. Gisasola beste baserri batetik dator. Gisasola baserrixa dao, liburuak eta eskudua be badaoz. Ni kuarentaidosain etorri nitzan ta oiñ hirurogeta hamaika urte dakaraz".

Oiñ be zaldixakin juaten zara kalera, ezta?

"Neu ta beste bat bakarrik juaten gara holan Eibarren. Beste bat asto zar-zar batekin juaten da, Asukua da bera. Asua baserrixa da. Reabilitaziñuan, han behian, trenbidian aspizan daozen tuneletatik juaten da horra baserrira. Haratxeiño ekartzen dau astua ta lagatzen dau. Ta neri dena protestia: ez lotzeko ta... ondiño! Usaiña emoten dabela ta... antza emoten dabela zaldixak ta... ez lotzeko! Ta esan notsan: ba bai! Lotukot bai! Esan notsan: lotukot bai! Hementxe lotukot! Erresidentziako batek be esaeztan: -badakizu zer pasatzen dan hamen: kanpokuek aginduak emotezkuezela ta guk eztoula ezer aiñdduten hemen!- Ta ze eiñ neban: alkatesiana juan ta... esan notsan: hauxe ta hauxe gertatzen jata. Juan daneko berrogeta sei urtian edo zazpizkan egunero-egunero etortzen naiz ta... -Lotu zuk- esaeztan, -zuk lotu, ta ezer badakazu kejarik etorri-. Ta bueno, holan segitzen dot. "Furia" zaldixa be aurrera doia, ta holantxeik, hemeritzi-hogei bat urte eukiko dittu onezkeru.

Baserrixak ondo bizitzeko emoten dau? Edo ez?

"Nik eztaitt. Gabiz holan eztakizu: astuari buztana atara ta bestiai sartu eiñ ta... holan! Holan! Bizi, ba... oiñ artian be handik bizi gara, handik bizi izan gara. Ta laguntasunik be estao!

Laguntasunik ezebe eztakau. Elgoibarrera juan biou. Elgoibarren dakau dana. Guk holako... problema-



ren bat edo ezer dakaun guztian Elgoibarrera juan biou, Eibarren estakau ezer. Elgoibarko berdura plazan egoten da: perito bat, guardia, beste bi andra... ta Eibarren oiñ eztao holakorik.

Gero frutia ta be oiñ gitxiao eitten da, ihartu eitten dia asko. Dana bertan bera geratzen da, usteldu eitten dia. Oiñ ipintzen gabiz, sagarrak gabiz sartzen. Igez sartu genduazkan batzuk eta aurtan sartu doguz morduia, hirurogeta hamar edo... Larogeta hamar sartu dittugu: batzuk jateko ta beste batzuk sagardaua eitteko. Ta bestalde ba, ardixak badakauz, behixak be bai, oiluak be bai...

etxatzu etorriko, etorri ta: -zu honek zenbaten? Holakotxe jentia dao! Nik estot entenditzen hori martxiori! Nik pentsatzen dot baserritarrei ez emotiarren.dala dana edo bestela... tonto batzuk dia!

Oiñ itxuria jentia deskremau bihar dau, ez loditzeko edo: ha zerekiñ eiñ-dako esnia dan nahi neuke jakin nik! Nik sebuakin da azurrekin eitten dabela pentsatzen dot. Gure esnia hiru egunian ezin leike eukin galdu barik ta... hille bixan egoten dia horrek esniok, zer dake ba?

Zer eiñ biharko litzake jentia baserrixan biharra eiñ deixin?

"Nik estakitt. Baserrixa nahi dau jen-

- "Neu ta beste bat bakarrik juaten gara holan Eibarren. Beste bat asto zar-zar batekin Asukua da bera.
- Baserrixa nahi dau jentia oiñ eh... txalet moduan edo... denporai pasau ta: soziedade moduan, hori ezta martxia! Eh.
- Asarre nao San Andresetako gauziakin galdu bihar dabez San Andresetako jaixak!
- Aurten be egon da bat gauzak erosittakuak euki dittuana ta hari emoetse bigarren premixua. Ta...eztao deretxorik!!!

Zelan pentsatzen dala Eibarko jentia baserriko produktuekin?

"Txarto. Ze... esangotsut: zaldixan badaroiaraz porruak, edo letxugak, edo zeozer... iñor etxata etorriko! Jakiñan dendan gehixau pagau bihar dabena, dendara juaten dira! Iñor

tiak oiñ eh... txalet moduan edo... denporai pasau ta: soziedade moduan, hori ezta martxia! Eh? Ta baserrixa dana undira bihar da! Hemen Arrate aldian dao bat eta bapez badaozenak basarri morduia. Arrate ballen be iguala doia. Zera... bapez. Segidarik ez. Eztot entenditzen

nik. Holako politxa da baserrixa baiña... neretako eh... neretako bai, neri asko gustazen jata.

Jentia nahixao dau kinzenia, sobria hillan azkenian, ha ona da: hamen ezta ikusten sobrerik. Hamen igual hartzen dozu frutia edo ta... hartzen dozu dirua. Oiñ jatekua beti! Ederre batek hamabost egunian joko baleuke: jatekua eukingo geundne!

San Andresak zelan ikusi dozuz aurtan?

"Asarre nao San Andresetako gauziakin! San Andresetako gauziakin asarre! Badakizu zeaittik?: galdu bihar dabez San Andresetako jaixak!

Ni juan nitzan oiñ dala hiru edo lau urte: hamazortzi gauza eruan nittuan, bata baiño bestia ederrauak, ederrak eh! Gauza asko ederrak! Ta bat euan han, erositta ekarritako gauzekin, erositta ipiñittakuekin; basarritar bat ta... hari premixua emoetsen! Ta guri ezebe! Ta esan neban nik hurrengo urtaian: nik eztot nahi premixotan sartzerik, ni juango naiz baiña eztot bihar ezebe.

Aurtan juan da... gitxiao ta... len emotezkuen juatirren 1.500 ta txorizo bokadillo bana hamaikak inguruan ta... oiñ: ez 1.500. ez bokadillo, ez txorizo, ez ezabez!

Ta aurtan be egon da bat gauzak erosi-takuak euki dittuana. Eibarkua da basarrixa baiña ez noia esatera zein, ta hari emotse bigarren premixua. Ta... eztao deretxorik! Eztao deretxorik erosittako gauzekin juan ta hari premixua emotia... Hori da edozer! Edozer da hori! Eh? Hemen lagatzen doia gauzia dena, eh? Ez ezer emon ez... eh... zer esangotsut!

Idoia Irazola Lasuen

Jatetxe - Erreategia

JOSHE MARI

OSTATUA

Arrageta, 18 - Tfnoa: 12 08 65
20600 EIBAR

MUÑOIA

ZURE AUTOARENDAKO
ORDEZKO PIEZAK

BIDEARRIETA 14, 16.

TFNOA. 11 13 17
11 62 28

Larremendi

Etterako
elektrotresnak

Estaziño, 6

Tfnoa. 11 30 11

TXURRUKA

OPTIKOAK
ZEURE ZERBITZURA

Bidebarrieta, 62 Tfnoa. 12 70 21

Irailagoitia liburudenda

- Jaunartzerako opari eta errekoratorioak
- Ingeles eta euskal liburuak
- Papertegia

Bidebarrieta, 22 Tel: 11 16 17



Herriaren betiko ohitura; tabernak eta ordutegia

Eibarko tabernetako ordutegia dela eta ez dela gure herrian egon dira eritzi ezberdin asko. Batzuk ordutegiarekin ados zeuden bitartean bazegoen kontrakorik ere gure herriko ordutegia- ren ezarrieraren arazo latz honetan. Oraingan **Ernesto Ezpeleta** ("Bihurri" bezala ezaguna), **tabernari batzuk** eta Udaletxeko zinegotzia den **Iñaki Arriolaren** eritziak jaso ditugu taber- netako ordutegiei eta giroari dagokiona herrian nola ikusten den azaltzeko.

Ernesto Ezpeletaren eritzia ordutegia gehitu edo gutxitu daitekeeneko litzateke, horretarako kontutan hartu beharko litzatekeelarik jendeak ere bere etxeko bizitza egiteko eskubidea duela. Tabernetan ibiltzen direnak eta etxe- etan bizi direnak akordio batetara heldu beharko lukete guz- tien gustokoa den ordutegi bat ezartzeko. **Ernestok** dionez beste herri batzuetako ordutegia ere antzerako samarra da: Tolosan, Zumarragan, Bergaran... ordu horiek isten direnean izaten da herri bakoitzean edo bailara bakoitzean beranduago isten duen taberna edo diskotekaren bat. **Ernestok** dionez: bostak arte isten duen taberna gainean bizi denarentzat ez da ona izango, baina juergan dabilenarentzako bai.

Eibarren lehen goizeko lau t'erdia inguru edo egoten ziren zabalik, baina gero ez dakit zer gertatu zen. Uste dut Ermuan hasi zirela lehenago isten eta gero Eibarren eta beste herri batzutan ere bai.

Golferixia egiteko Eibar herri haundi samarra da eta klase askotako jendea dago: batzuk alde batetik jotzen dute eta bes- te batzuk bestetik. Herri txikietan ez da horrelakorik gerta- tzen, generalean denak antzerakoak izaten bait dira. Eibarren beti izan da arrakastatsua tabernetako ohitura: herrian taberna

besterik ez dago, ta hori zergaitik? Jendea joaten delako izan- go da.

Tabernariak mintzo

Tabernari batzuk azaldu digutenez Eibarren ez dago taber- nari elkarte edo horrelako asoziazio zehatzik non gauza guz- tiak akordioz hartu edo erabakiko liratekeen. Taberna bakoit- za bereaz arduratzen da batez ere.

Normalki taberna berdinetakoa jabeak elkartzen dira, adibi- dez: San Juan kalean horrela dago antolatutik. Beste kontutan hartu beharrekoa tabernak kategoria ezberdinen arabera elkartzen direnekoa litzateke, kategoria ezberdinak bait dau- de: espeziala, normala, jatetxeena, bestelakoak... Eibarko taberneak kategoria antzerako samarra dute eta prezioak ere berdintsuak dira; horrek ez lukeelarik zerikusirik ordutegia- tan. Lehen tabernak beranduago isten ziren: lau t' erdia edo bostak inguruan. Gero hiruretarra jeitsi zen eta denborarekin hiru t'erdia inguruan istera heldu gara. Jendea ez da asko kexatzen. Halere, guri ez zaigu ondo iruditzen ordutegi ezber- dintasuna taberna batzuk bakarrik izaten dituztelako irabaziak besteak isten dituztenean jendea hara joaten bait da. Taberna

horietan prezioak ere garestiagoak izaten dira eta jendeak lujo hori ordaindu egiten du beranduagoarte gelditzearen.

Gure ustez guztiok ordutegi berdina izan beharko genuke eta tabernarioi gehiago ordaindu beharko litzaiguke.

Udal arduraduna

Udaletxeko zinegotzia den Iñaki Arriolaren ustetan ordute- gia, ezarrita dagoen ordutegia, betetzen da. Halere izaten dira egunak ordutegi hori luzatzen direnekoak eta noizbait gertatu izan da tabernaren batek ez betetzea ere, baina gaur, esan dai- teke ongi betetzen dela. Tabernak isteko ezarrita dagoen ordua.

Gaur egunean bestalde asko gastatzen da nahiz eta giroa ez den orain urte batzuk bezelakoa. Lehen jendeak ia egunero irtetzen zuen baina gaur egun kontzentrazio bat eman da eta batez ere aste buruetan irtetzen da. Ohiturak aldatzen hasiak dira: bideoa, telebista eta bestelakoei esker. Eibarren beti egon da eta ongi dago jarraitu dezan golferiak. Halere batzu- tan ganberrismoa ere ematen da, batez ere oraindik jarraitzen du nahiz eta txikiteoa galtzen ari dela esan daitekeen.

Nola ikusten duzu Eibarko tabernak isteko ordutegia?



Beatriz Zabala, 19 urte. Informatika gestio ikaslea.
"Nire ustez denbora gehiago utzi beharko lukete gauean. Badago gau guztian hortik zehar ibil- tzen den jendea eta goizeko lauretan etxera joa- teko gogorik izaten ez dutenak baina tabernak isten direla eta joan beharra dutenak"



Lorenzo Ayerbe, 75 urte. Jubilatua.
"Nik gitxi alternatzen dot tabernetan. Goizeko hiru t' erdia edo laurak berandu da neretako, lehenago itzi biharko litzake. Hamabitan ohera, danok ohera! Ordu ederra da. Ez hor eh... hama- biterdixetan da urtenda, eh? Hori ez!"



Andres eta Mikel, 22 urte. Ikasleak.
"Guri goizegi isten dituztela iruditzen zaigu. Juergan zabiltzanean, goizeko hiruretan, isten dituzte eta etxera joan behar duzu. Goizeko hamarrak arte zabalik egon beharko lukete."



Roberto Marzana, 42 urte. Langile autonomoa.
"Kontutan izan behar da tabernak non kokatuta dauden, Nik uste badaudela berandurarte egote- ko baimenik ez duten tabernak. Horrelako egoe- ran taberna larregi daudela pentsatzen dut. Beranduago itxiko luketen lokal egokiak behar- ko lirateke gazteentzat."



Consatacia de Perosanz, 63 urte. Unibertsitate Laboralean langile.
"Begara, ni ez naiz gauean batere ibiltzen, baina niri berdin zait. Bakoitzak nahi duena egin deza- la."



Amaia, 18 urte. Entreprenari ikaslea.
"Hiru t'erdia laurak inguruan isten dituzten tabernak baino gertuago zabalik gelditzen diren tabernak ez jataz gustatzen."



Izaskun, 47 urte. Etxeko andrea.
"Neri egia esan ez dit asko ardua gehixena zapatuetan izaten delako. Beste egunetan ez da izaten horrenbesterik. Niretzat ezta molestua ta bizi naiz zentro-zentruan, Dos de Mayuan. Eztakitt akostunbrauta egongo naizen zaratara edo baiña nik lo berdiñ eitten dot."



Antonio, 45 urte. G.A.C.-en langile.
"Niretzat ondo daude. Giro ona dago, baina halere gaur egun gazteria beste herri batzutura joaten da: Durangora, Ermua... zeren han beste ordutegi batzuk dituzte eta gainera gazte giroa hobe da."



Elena Etxabe, 10 urte. Ikaslea.
"Ondo ikusten ditut. Halere goizegi izten dituz- tela pentsatzen dut. Nik uste dut beranduago itxi beharko lituzketela, bostak eta gero."



Bartolome Aldalur, 72 urte. Jubilatua.
"Ondo ikusten dot, ene! Fenomeno! Txikiteorako ta ondo! Gabian baiña eh... gabian ordu txarrak! Txarrak! Jentia molestau eitten da eta asko."

AGENDA: 1991ko Urtarrilerako

■ **GUAI - GABONETAN UMEAK ALAI**
Udal Euskara, Kultura, Ingurugiro, Kontsumo eta Ekonomia Sailek antolatutik.

■ **JOLASLEKUA: HANKA LUZE ESKOLA, SUR- FEKO TAULAK, GAZTELUAK, KOLTZOIAK...**
Urtarrilaren 4rte. EGUNERO. ORDUTEGIA: Astegunetan: 10,30 - 12,30 / 16,30 - 19,30 / Jaiegunetan: 11 - 13 / 17 - 20. Armeria Eskola eta Teknikerren.

■ **TXANGO EKOLOGIKOAK**
01. 3an: 1., 2., 3. eta 4. Mailakoak. FLOSUARA.
01. 4an: 5., 6., 7. eta 8. Mailakoak. TXINGUDIRA.
Irteerak: Untzagako Kioskoetan goizeko 10etan.
Izen ematea: Udaletxeko Informazio Bulegoan. Armeria eta Teknikerreko takiletan. **Prezioa:** 200 Pzta.

■ **ATRAKZIOAK**
12.30ean: BARIETATEAK (Magoak...)
01-1an: ANTZERKIA
01. 5ean: BERBENA
ARMERIA ESKOLAN. Arratsaldeko 6retan.

■ **KIROLAK POLIKIROLDEGIAN**
Ikastetxeen arteko txapelketa: Saskibaloia, esku- baloia, futbola. Urtarrilaren 4ra arte.
Kirol eskolen arteko txapelketak: 01.4an Goizeko 11etan: igeriketa./ Baita eskupilota eta xakea ere.
Demostrazioak:
12.31ean - 11etan: **Gimnasia erritmikoa.**
01.4an - 12etan: **Xake** (Udaletxean).
Egunero: eskalada - radminton - igerilekuko jola- sak - beste jolas batzuk.

■ **TAILERRAK**
Urtarrilaren 5ra arte. Jaiegunetan: 11 - 13 / 17 - 20
Astegunetan: 10,30 - 12,30 / 16,30 - 19,30 (5ean bakarrik goizez)
Armerixan:
• **Elikadura eta ordenagailua - mazapanak egitea - ileapaindegia - irratia.** Teknikerren
• **Gabonetako apaingarriak - jostailuak eraikitzen - paperaren berziklapena - irratia.**

■ **OHARRAK**
Bonoak daude: Baliogarriak dira eguneroko ekintza guztietan parte hartzeko. **Prezioa:** 15.000.

Eguneroko sarrerak bonorik gabe: **Prezioa** 200 Pzta. Armeria eta Teknikerren.

■ **KIROLA**
K. Deportiboko Mendizale Taldeak antolatutik.
Mendi irteera
01 - 19an: Lemoa - Durango.
Haurrentzako Irteerak: Herriko haur guztientzat. Izen-ematea: Ikastetxeetan.

■ **EIBAR HIRIA/ IPUIN LEHIAKETA**
01 - 17an: Udaletxeko Kultura Aretoan. Sari-Banaketa.

■ **ERAKUSKETAK**
Argazkilaritza. K. Deportiboko Argazki Taldeak antolatuta.
Abenduaren 27tik - Urtarrilaren 10era. Udaletxeko Kultura Aretoan.

■ **ZINEMA**
Ego-ibar eta Eibar Zine-Klubek antolatutik.
12.28an Unibertsitate Laboralean 4 pelikula emango dira. "La Blanca Paloma", "Colors", "Mujeres al borde de un ataque de nervios" eta "algo Salvaje".
Emanaldia Arratsaldeko 7retan. Sarrerak: Unibertsitatean.

NORK - ZER

Koordinatzailea:

Fernando Muniozguren.

Erredakzio taldea:

Ana Aizpuru
Idoia Irazola.
Fernando Muniozguren.
Jose Luis Gorostegi.
Letizia Gomez.
Oskar Rekalde.
Arrate Zuloaga.
Aitor Gorosabel.
Jose Luis Gorostegi.
Letizia Gomez.

Argazkilaria:

Jose Valderrey.

Literatura:

Ane Sarasketa

Maketazioa:

Jose Valderrey.

Komikia / Marrazkia:

Ander Gisasola.

Inprimaketa:

Gertu